

herritarrekin



www.aurrekontuahobetzen.eus

GIPUZKOAKO PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

20 MILIOI euro 10 ESKUALDE hobetzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrei aukera eman nahi die diru publikoaren kudeaketan parte hartzeko. Aurten, foru aurrekontuetako 20 milioi euro - lau urtetan eta hamar eskualdetan - bideratuko ditu herritarrek erabakitzen dituzten egitasmoak gauzatzeko.

ZER DIRA?

Foru Aldundiak bere aurrekontuaren zati bat herritarren esku uzten du, herritarrek beraiek erabaki dezaten diru hori zertan erabili. Aurten, 2015ean, ia Gipuzkoa osora zabalduko dira Partaidetzako Aurrekontuak: Bidasoaldea, Buruntzaldea, Debarrena, Debagoiena, Goierri, Oarsoaldea, Tolosaldea, Urola Erdia, Urola Garaia eta Urola Kosta eskualdeetan egingo dira prozesu parte-hartzaileak.

ZEINTZUK DIRA JOKOAREN ARAUAK?

Eskualde bakoitzak 2 milioi euro izango ditu datozen lau urteotan inbertitzeko. Eskualde horietako herritarrek erabakiko dute, prozesu parte-hartzaile baten bidez, zein proiektutan inbertituko den diru hori.

1

HERRIETAN
PROPOSAMENAK
JASO

2

ESKUALDEAN
PROPOSAMENAK
LEHENETSI

3

ALDUNDIKO
TEKNIKARIEN
BALORAZIOA

4

BEHIN
BETIKO
AUKERAKETA

5

FORU
ALDUNDIAREN
AURREKONTUETARA

NOLA PARTE HAR DEZAKET?

Hiru modu daude parte hartzeko:

1. Zure IDEIAK eta PROPOSAMENAK behealdeko **fixan** idatzi ditzakezu eta zure herrian jarriko diren *Herritarrekin* postontzietan utzi.
2. Interneten, www.aurrekontuahobetzen.eus webgunearen bidez.

Ekarpenak egiteko epea **apirilaren 30ean** amaituko da.

3. Aktiboki parte hartu nahi baduzu, zure herriko **partaidetzako tailerrera** joan zaitezke. Bertan, proposamenak egin eta, zure bizilagunekin batera, adostuko dituzue zuen eskualdea hobetzeko egitasmoak. Tailerrak herri guztietan egingo dira apirilean eta maiatzaren lehen astean. Tailerrak noiz eta non izango diren eta *Herritarrekin* postontziak non kokatuko ditugun jakinaraziko dizuegu karteletan, www.aurrekontuahobetzen.eus webgunean, tokiko hedabideen bidez eta zure udalaren bidez.

Oharra: Pertsona gorrek, tailerretan parte hartu nahi izanez gero, www.gipuzkoa.eus/eu/zeinuhizkuntza webgunearen bidez zeinuen interpretazio zerbitzua eska dezakete.

ZURE ESKU DAGO. PARTE HARTU!



